

UPV/EHUko ZUZENBIDE FAKULTATEKO JUSTIZIA SOZIALAREN ALDEKO KLINIKA JURIDIKOKO IKASLEAK HAUTATZEKO IRIZPIDEAK, HAREN ZUZENDARITZAK 2017ko IRAILAREN 6an ONARTUTA

Justizia Sozialaren aldeko Klinika Juridikoaren (aurrerantzean JSKJ edo Klinika) eginkizun nagusia da Zuzenbideko eta Kriminologiako 4. mailako ikasleek eta Abokatutza masterrekoek beren praktikak, GRALa eta MALa bideratzea Euskal Herriko errealitate sozialeko kasu eta arazoen gainean islatutako pedagogia eta praktika klinikoen bidez. Eginkizun konplexua denez, ikastegiz kanpoko gizarte eragile eta profesionalek hartu behar dute parte, eta, batez ere, pertsona horien eskuragarritasuna mugatua denez, ikasturtetik ikasturtera zehaztu behar da ikasleei eskaini beharreko plaza kopurua. Horiek horrela, eskaera kopurua dauden plazena baino handiagoa bada, ikasleak hautatzeko irizpide eta baremo hauek erabiliko ditugu, betiere 10eko puntuazioari helduta:

1. **Espediente akademikoa (% 50 gehienez).** Zenbaketarako, kalkulatu da zein izan den espediente akademikoaren batez besteko nota. Gehieneko batez besteko notari 5 puntu emango zaizkio, eta hortik aurrera esleipen proportzionala egingo da gainerako eskaeratarako, horien batez besteko notak kontuan hartuta.
2. **Prestakuntza Osagarria (% 20 gehienez).** Prestakuntza osagarriaren barruan, hauen artean bereziko da:
 - Unibertsitateko tituluak edo graduak: % 10 gehienez.
 - Graduondokoak: % 5 gehienez.
 - Klinikaren helburuekin lotutako ikastaro, tailer edo mintegiak: % 5 gehienez. Atal honetan sartuko dira Praktikak eta GRALak.
3. **Esperientzia profesionala eta/edo elkarten sarean izandako parte hartzea, baldin eta Klinikaren helburuekin zerikusia badute (% 20 gehienez).**
4. **Elkarrizketa (% 10 gehienez).** Elkarrizketan urriaren 2an dira 16.00etatik aurrera (Donostiako ikasleek Klinika Juridikoan izango dute elkarrizketa eta aldiz, Leioako ikasleek Teams bidez)

Alegatutako merezimenduak justifikatzeko, eskaerari erantsi beharko zaizkio jatorrizko agiri eskaneatuak.

Klinikako zuzendaritzak hautatuko ditu ikasleak, Zentroko titulazioen eta Kampus desberdinetako arteko oreka errespetatuz. Hautaketa prozesu ondoren onartuen zerrenda argitaratuko da.